



# GKEF FGdA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa  
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado



Memoria 2019

**Kirolak irribarre guztiak behar dituelako!  
¡Porque el deporte necesita todas las sonrisas!**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ORAIN  
KIROLA

# Aurkibidea



|     |                                                                                |    |
|-----|--------------------------------------------------------------------------------|----|
| .1  | Sarrera                                                                        | 4  |
| .2  | Plan estrategikoa                                                              | 10 |
| .3  | Helburuak                                                                      | 14 |
| .4  | Lan ildoak                                                                     | 16 |
| .5  | Jarduera plana                                                                 | 20 |
| .6  | 2019ko Gertaera garrantzitsuak                                                 | 58 |
| .7  | Esku-hartze sozialaren eta sentsibilizazioaren esparrua                        | 62 |
| .8  | Gizartea sentsibilizatzeko jarduerak                                           | 66 |
| .9  | Eskola kirol egokituko familien topaketa                                       | 72 |
| .10 | Familien bilerak eta balorazio saioak Gipuzkoan                                | 74 |
| .11 | Helduei eta adineko pertsoneri zuzenduriko entrenamendu funtzionaleko programa | 76 |
| .12 | Praktika- programa                                                             | 80 |
| .13 | Ur- ingurunean estimulazio goiztiarreko programa                               | 82 |
| .14 | Sentsibilizazio programa: Real Sociedad Fundazioa                              | 84 |
| .15 | Hegalak Zabalik Fundazioa                                                      | 88 |
| .16 | GaituzSport Fundazioarekin elkarlana                                           | 90 |
| .17 | Bizipoza Elkartarekin elkarlana                                                | 94 |
| .18 | Gure aliantzak                                                                 | 96 |

# Sarrera





.1

---

**Gipuzkoako kirol  
egokituaren  
errealitatea ikusarazten  
laguntzen  
duten proiektuak bultzatuz  
hasi genuen urtea.**

2017-2020

**2019 honetan, eta 2017-2020 plan estrategikoaren barruan, Gipuzkoako udalerri eta eskualde guztietan kirol egokituak praktikatu ahal izateko aukerak bermatzen jarraitu dugu lanean, sentsibilizazio jardunaldi, formakuntza egitasmo eta adin tarte ezberdinetako pertsonen kirol praktikarako sarbidea ahalbidetzen duten programa espezifikoak abiaraziz.**

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak- Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Guipúzcoa "KIROLEAN DESGAITASUNAREKIKO ARRETA ERE-DUA" bultzatu du eta elkarlanean dihardugu, Gipuzkoako udalerri eta eskualde bakoitzean kirol zerbitzuekiko orientorako arreta sarea osatu nahian.**

Eredu honen arabera, oinarritzko osasun arreta zerbitzuak eta Kirol Orientazio Zerbitzuen arteko elkarlana sustatu nahi da, erakunde ezberdinen arteko elkarlana dela eta batetik besterako deribazioak eginez. Zerbitzu hauen artean HOBESGI Egitasmoa dago, Hegalak zabalik Fundazioaren baitan dagoena, eta diziplinararte lanean oinarrituz, dependentzia maila altua, baliabide ekonomiko baxuak eta zenbait erizpide betetzen dituzten pertsonen arreta ematea da bere helburua.

Egitasmo hauek oraindik sorrera fasean daude baina poliki poliki zerbitzu sare trinko bat eratze bidean izango gara, patologia nahiz desgaitasun ezberdinak dituzten geroz eta pertsona gehiago aktibo bihurtuz. Hala ere, kontziente gara, jardura fisiko egokitu eta inklusiboa zeharkako ardatz izan dadin egiteko ugari dagoela oraindik.

Gaur egun oraindik, desgaitasuna duen populazioaren kirola egiteko eskubidea, sozialki garatu eta normalizatu gabe dagoen arlo bat da eta gizarte eremu guztietan sentsibilizazioa eskatzen duen gaia da, kolektibo honen osasuna, bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko bidean, kirolarekiko sarbidea denon artean bermatu be-

harko dugulako.

Azken urteotan, Gipuzkoa mailan jarduer fisiko eta kirol egokituaren inguruan lanean dihardugun agente eta erakunde guztion artean, dibertsitate funtzionala duten pertsonen kirolerako sarbidea posible egin duten zerbitzuak sortzen joan gara, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza eta Gizarte Politikako departamentua, Udaletxe ezberdinak eta gure inguruko erakunde pribatuak besteak beste.

Oraindik ere "aniztasunarekiko arretan begirada aldaketa bat eman dadin" lanean jarraitu behar dugun arren, egitasmo politikoek baliabide gehiago mahaigaineratu beharko lituzketela iruditzen zaigu, adibidez, zahartze aktiboa jorratu nahi duen edozein herritarrentzako zerbitzu espezifikoak diseinatu eta sustatuz, edota pertsona autonomo nahiz kirol ibilbidea jorratu ahal izan dutenez gain, desgaitasuna duten pertsona dependienteagoen zerbitzuak eskeiniz: desgaitasun fisikoak, sentsorialak, intelektualak, sozialak, gaixotasun arraroak, desgaitasun anitzak, etab.

Pertsona hauekiko arretak baliabide gehiago eskatzen ditu baina aurretik oinarritzea izango da dependentzia egoerak sortzen dituen zailtasunak ezagutu eta hauek gainditzeko politikak mahai gainean jartzea, bazterketarik gabeko ingurune seguru eta irisgarriak planteatu daitezen kirolaren inguruan.



Horretarako, eta dependentzia mailarik altuena duten pertsonen irisgarritasuna bermatu nahian, jarraian zerrendatzen dira ezinbestekoak izango diren lau oinarriak:

1. Instalakuntza guztien diseinu unibertsala, errespetatu beharreko irisgarritasun legean oinarrituta.
2. Populazio honi arreta egokia emateko beharrezkoak den profesional taldea.
3. Beharrezkoak diren kasuetarako laguntza teknikoak.
4. Dependentzia maila altuenak dituzten pertsonak kirol praktikara gerturatzeko beharrezkoak diren garraio egokituak.



## 2017-2020

2019 urte bukaeran GKEFK kirol elkarte berriak barneratu ditu bere baitan, **gaur egun 23 elkarte daudelarik federazioan izena emanda**. Gainera, 2019an zehar, orientazio berri ugari egin ditugu eta asko dira iada martxan dauden zerbitzuetarako sarbidea izan duten herritarrak.

Nabarmendu nahiko genuke gainera, geroz eta pertsona nahiz erakunde pribatu gehiago direla eremu honetan interesa eta sentsibilizazioa aurkeztzen digutenak eta sarearen parte izan nahi dutenak, honen egiten duenari posible Gipuzkoako Lurralde historikoa zenbait aspektutan erreferente bihurtzea.

Eragile guztion ardura izango da, desgaitasun egoeran dauden pertsonen kirola egiteko dituzten beharrei erantzuteko, Lurralde Historikoan eskeintzen diren zerbitzuen kantitate eta kalitatea hobetzea, kirol elkarte egokitu nahiz konbentzionalekin elkarlanean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Federazio hau eskuordetzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoan kirol egokitua antolatu, sustatu eta zabaltzeko funtzioetan.

**Jarduera plana hontan oinarritzen da:**

- Pertsona, elkarte, federazio eta erakunde asistentzia.
- Kirol antolakuntza eta bere txapelketak; eskola kirol egokitu eta inklusiboari asistentzia.
- Kirol eskolen sustapena.
- Etorkizun oparo eta talentudun kirolarien

antzematea.

- Teknikifikazioa; desgaitasuna duten pertsonen kirolerako sarbidea eta promozioa.
- Kirol egokituko eragile ezberdinen formakuntza.

Gure lana Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden baliabideak koordinatu eta optimizatzean datza, formakuntza duten boluntario eta profesionalen artean, eragile eta zerbitzuen arteko sare bat osatuz. Sare honen helburua eskeintzen den kirol arreta hobetzea izango da, desgaitasuna edota patologiarekin bat duten pertsonen osasuna, bizi kalitatea eta ongizatea lortzeko jarduera fisikoa beraien beharretara egokituz.

gainditzeko eta kirol eremuan inklusio soziala sustatzeko.

Etorkizunerako erronka izango da, beraz, gipuzkoako eskualde guztietan desgaitasuna duten pertsonentzako kirol praktika bultzatzea. Beti ere norberaren zailtasunak, aukerak eta ezberdintasunak kontutan izanda, noski.





# Plan estrategikoa



## Xedea

Irabazi asmorik ez duen entitate pribatua da, nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena duena, eta kirolari, laguntzaile, teknikari, epaile, kirol elkarte eta klubak biltzen ditu bere baitan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan urritasuna duten pertsonen kirola egin dezaten sustatzeko eta antolatzeko.

Eta horretarako, gure etorkizuneko egitasmoarekin bat eginda, funtsezko helburu hauekin konprometitzen gara:

- **Eraldaketa sozialean lagundu nahi dugu** sare-tutako elkarlan esparru bat sortuz, irisgarritasun unibertsala, berdintasuna eta komunitateko baliabideen optimizazioa lehenetsiz.
- **Laguntza sistema integral bat gestionatu edo/ eta sustatu nahi dugu** desgaitasun egoeran dauden pertsonentzako kirol aukerak sortzeko gai izango dena eta banakako arretaren bitartez senideei laguntza eskeinitzeko diena.
- **Zerbitzu berrien sorrera sustatu nahi dugu** existitzen ez diren zonaldeetan egokitu eta espezializatutako zerbitzuak martxan jarritz.





## Ikuspegia

## Baloreak

**Aurretik azaldutako esparru kontzeptualarekin lotuta eta aurrekari eta ekarpenetatik abiatuta, etorkizun ikuspegia hiru dimentsiotan formulatzen da:**

1. Desgaitasun egoeran dagoen edozein pertsonari bere ingurune naturalean kirol praktikarekiko irisgarritasuna bermatzea, aldi berean gizarte solidario eta begirunetsuago bat eraikiz.
2. Desgaitasuna duen edozein pertsonak era progresiboan bere eskualdean kirol praktika egin ahal izateko aukerak sortu, gure baloreekin bat eginda, pertsonen zerbitzura egongo den eta hobekuntza jarraia eskeiniko duen marko batetan praktika etikoa bultzatuz.
3. Helburu hauek aurrera eramateko finantziario iturriak lortu, kalitatezko zerbitzuak emateko gai izango den profesional taldearekin kontatuz baina ekonomia jasagarri bat oinarri izanda.

**Era berean, GKEFk hurrengo oinarri eta baloreak definitzen ditu erakundearen garapen etikoa lortzeko giza eta erreferentzia bezala:**

**GKEF- FGDaren baloreak hurrengoak dira:**

### Duintasuna

Duintasunak, alde batetik, pertsona errespetatzeko betebeharrak adierazten du eta bestalde, eskubideak dituen norbanakoaren aitortza.

Duintasuna da funtsezko eskubide eta betebeharren oinarria. Gizaki oro baliotsua dela aitortu eta errespetatzea suposatzen du, manipulatu ezin dena, ekimen autonomoak izateko gai dena; bere gaitasunak gogobetez garatzeko eskubidea ematen diolarik.

### Berdintasuna eta Ekitatea

Pertsona orok dauzka bere eskubideak bere duintasunari atxikituta-baita dagozkion betebeharrak ere-, aldi berean norberaren ezberdintasunak onartzen direlarik. Garrantzitsua da norberak bere oinarritzko beharrak asetuta izatea, norberaren gaitasunak garatu ahal izateko eta sozialki apoiatuta sentitzea, norberaren bizi proiektuari aurre egin ahal izateko.

Ekitatea, gizon, emakume eta gaitasun ezberdinak dituzten pertsonen





artean justizia eta aukera berdintasuna egotea suposatzen duen balorea da. Guri dagokigun alorrean, ekitateak, kirola praktikatu ahal izateko bakoitzak behar dituen baliabideak eskura izatea suposatuko luke.

### **Pertsonalizazioa**

Gure jardun profesionala erabiltzaileak diren pertsonen bizi kalitatea hobetzera bideratzen da, gizabanako bezela, norberaren ezaugarri indibidualak errespetatuz eta ez, kolektibo orokor batetako partaide bezela kontutan hartuz; bakoitzaren behar espezifikoak onartuz eta erantzun pertsonalak emateko eskubidea bermatuz.

### **Enpatia**

Erakunde honetan lan egiten dugun pertsona orok izan behar dugun ezaugarria da, besteekin harreman egokiak eraikitzeke gai izan behar dugularik. Denak izan

beharko gara gai erabiltzaile nahiz beraien senideak ulertu, apoiatu eta motibatzeke.

### **Ahalegin/ konpromisoa**

Ahaleginaren balorea oso garrantzitsua izango da lan honetan, kirol helburu eta helburu sozialak lortu ahal izateko estrategiak bilatzen jarraituko dugularik.

Gure lana aurrera eramateko aurreikusitako denbora epea errespetatzeko ahalegin guztiak egingo ditugu. Konpromisoa hartzerakoan, gure gaitasunen maila gorena eskeiniko diogu zereginiei aurre egin eta gure programako helburuak lortzeko.



# Helburuak



# .3

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoan kirol egokitua antolatu eta garatu, kirol klubekin batera.
2. Gipuzkoan desgaitasun egoeran dauden pertsonen artean kirola sustatu eta zabaltzea.
3. Desgaitasun egoeran dagoen kirolaria bere ingurune naturalean integratu eta kirol klubetarako kirol ibilbidea erraztu.
4. Kirol arduradunen formakuntza orokor eta jarraia bultzatu, ezagutza areagotzeko asmoz.
5. Benetako inklusio soziala errealia izan dadin, kirol erakundeen marko inklusiboak faboratzeko estrategiak garatu.
6. Desgaitasun egoeran dagoen kirolariari eskeintzen zaion jarduera profesionalizatu eta teknifikatzea.
7. Egitasmo ezberdinak aurrrera eramateko finantziatzeko moduak bilatu eta ekonomiko nahiz sozialki jasangarriak izan daitezen lagundu.
8. Kirol egokituko klub eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten elkarteekin elkarlanean aritu.
9. Kirol egokitu eta kirol inklusiboko topaketak sustatu.



# Lan ildoak





# .4

---

**Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak eta bere baitan dauden klubek, desgaitasun egoeran dauden pertsona ugariri jarduera fisikoa eta kirola praktikatzeko sarbidea eman dieten hainbat programa sortu, kudeatu eta aurrera eramane dituzte.**

2019 urtean zehar, adin tarte bakoitzeko zerbitzu eskeintza areagotzeko lan ildoak eraman dira aurrera, baita kirol sektore honen inguruko ezagutza eta formakuntza mailak areagotzeko lan ildoak ere, kirol praktikaren inguruko aukera berdintasunak areagotuz.

Proposamen hauek eskaera ezberdinen arabera sortzen dira, alde batetik klub eta elkarte ezberdinek dituzten beharrak asetzeko, eta bestalde, desgaitasuna duen pertsonen kolektiboak kirol egokitua praktikatzea eta aisialdi aktiborako duen eskubidearen aldarrikapen soziala asetzeko.

## Esku-hartze eremuak



## Organigrama

### BATZARRA ZUZENDARITZA BATZORDEA

#### IKUSPEGIA

- Ingurunean aniztasun funtzionala duten pertsona guztien bizi-kalitateari eta osotasunari begira.
- Ezagutza eta esperientziak sortzea, Gipuzkoan zerbitzu-eta jarduera-sarea sortu ahal izateko.
- Gizarte inklusioa bultzatzea, kirol egokitu eta inklusiboaren bidez.

PRESIDENTEA: **Igor Otaegi**  
PRESIDENTEORDEA: **Blanca Aranguren**  
DIRUZAINA: **Estibaliz Sagarmendi**  
MEDIKUA: **Jacobo Vázquez**

#### BATZORDEKIDEAK:

- **Juanma Oliden**
- **Ana Borrezo**
- **Ana Godoy**
- **Vanesa Asensio**
- **Ander Romarate**
- **Javier García**

#### KUDEAKETA PRINTZPIOAK

- Gardentasuna.
- Aukera-berdintasuna.
- Berdintasuna.
- Pertsonentzako zerbitzuak.
- Lankidetzatza.
- Inguruko baliabideen kudeaketa.
- Hezkidetzatza.
- Bateratzea.

#### GERENTZIA PARTEKATUA

FINANTZA ZUZENDARITZA: **Amaia Elizondo**  
ZUZENDARITZA TEKNIKOAK: **Alicia Figueroa**

SANDRA  
PEÑA

RAKEL  
VIDAL

JURGI  
OLASAGASTI

ENERITZ  
MAYORA

IRATI  
FERNÁNDEZ

MIREN  
ZABALA

JOSU  
ZUBIA

#### ZUZENETAKO LAGUNTZAKO TALDE TEKNIKOAK PRAKTIKETAKO IKASLEAK ETA BOLUNTARIOAK

# Jarduera plana





# .5

---

Gure kirol politikek, diskriminazio positiboa nahiz irisgarritasun unibertsalaren ikuspegia kontutan hartuz, jarraian aipatzen diren esparruak garatzen jarraitzeko helburua izan dute:

- Emakumea eta kirola (Berdintasun plana).
- Desgaitasuna duten pertsonen zahartze aktibo- deportiboa.
- Buru nahasmendu sakona duten pertsonak eta kirola.
- Autismoaren espektro nahasmendua (AEN) duten pertsonak eta kirol praktika.
- Dependentsia maila altua duten pertsonentzako kirol- praktika.
- Estimulazio goiztiarra aretoko psikomotorizitate saio eta uretako saioen bidez.
- Gizarte- bazterketarako arriskua eta desgaitasuna.

## 5.1. Kirol eremua

### 5.1.1. Orientazio zerbitzu orokorra. Asistentzia teknikoa

Asko dira jarduera fisikoa edota kirola egin nahi duten pertsonak, beraien ingurunean dauden aukerak ezagutu nahi dituztenak, gertuko erakundeetako pertsonak sentsibilizatu nahi dituztenak...eta asko dira ere kirola eta desgaitasunarekin lotuta norbakoak izan ditzakeen helburu pertsonalak ere.

Hori dela eta, ezinbestekoa izango da Gipuzkoan gure esparruan lanean diharduten eragile ezberdinen baliabideak eta koordinazioa erreztea.

**GKEftik urte guztian zehar, jarraian zehazten diren helburuak lortzeko orientazio zerbitzu bat eskaini da:**

- Desgaitasun egoeran dagoen kirolaria bere ingurune natural gertukoenean integratu eta kirol elkarateetarako ibilbidea erreztu.
- Kirol elkarateetan esparru inklusiboak planteatzeko estrategiak garatu, inklusio soziala faboratuz.
- Kirol egokituko klub eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzan dituzten elkarateekin elkarlanean aritu.
- Kirola egin nahi duten pertsonen dauzkaten aukeren inguruan orientatu.





## GKEFaren orientazioak

**2019 urtean egin diren orientazio guztiak lau azpitalde nagusitan banatzen dira:**

### **Herritarrei asistentzia orokorrak (150h).**

Populazio orokorrari eskeinitako informazio, orientazio eta aholkularitza zerbitzua. Zerbitzu hau GKEFko teknikariek eskeintzen dute, aholkularitza egiteko komunikazio bide ezberdinak erabiliz:

- Bulegoan egiten den asistentzia.
- Telefonoz.
- Email bidez.
- Egoera ezberdinak aztertzeke bisita presentzialak.
- Tokian tokiko kasuetan akonpainamendua.

### **Gipuzkoako udalerri, elkarte eta klubei aholkularitza (330h).**

Zerbitzu hau kirol egokituaren inguruan lan egiten duten edota desgaitasuna duten pertsonentzako jardueraren bat antolatu nahi duten erakundeei bideratuta dago. Baita, kirola praktikatu ezean ohitura sedentarioak izan ditzaketen herritarrei edota egoera zaurgarriak dituzten pertsonen.

### **Gipuzkoako Foru Aldundiari aholkularitza (130h).**

GFAko kirol departamentuarekin amankomunean

munean dauzkagun gaien inguruan ematen den aholkularitza zerbitzua da, kirol egokitua nahiz jarduera fisiko egokituaren inguruko gaietan, alegia.

### **Gipuzkoako udal kiroldegietan desgaitasuna duten erabiltzaileen inguruko arreta egokia sustatzeko aholkularitza eta ikastaroak (6 ikastaro).**

Kirol udal instalakuntzetako langilegoarentzat formakuntza.

## 5.1. Kirol eremua

GFAak Gipuzkoako Arreta Ereduarekin erlazioan martxan jarritako estrategia-ren barruan eta gipuzkoako zenbait biztanle talderen bizi ohituretan aldaketak eragiteko helburuarekin, GKEF formakuntza saio ezberdinak ematen aritu da udal kiroldegi ezberdinetako kirol teknikariei, dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretan aholkularitza eman nahian:

- **Zumaia** (Kirol instalakuntzak)
- **Irun -1** (Kirol instalakuntzak)
- **Irun - 2** (Kirol instalakuntzak)
- **Bergara** (Eskola kirola)
- **LEK:** Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta y Leintz Gatzaga (Eskola kirola)
- **Oñati** (Eskola kirol inklusiboa)





## Orientazioen laburpena

| ORIENTAZIO ESPARRUAK                                  | ORDU KOPURUA   |
|-------------------------------------------------------|----------------|
| HERRITARREKIKO ORIENTAZIO OROKORRA                    | 224,25         |
| GIPUZKOAKO UDALERRI, ELKARTE ETA KLUBEI AHOLKULARITZA | 648            |
| GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI AHOLKULARITZA              | 117            |
| AHOLKULARITZA ETA IKASTAROAK                          | 54             |
| <b>GUZTIRA</b>                                        | <b>1043,25</b> |



### Eskola sentsibilizaziorako egitas-moa - "Ezberdintasuna bizi".

EZBERDINTASUNA BIZI ikastetxeetan ga-ratu eta baloreetan oinarritzen den pro-grama hezitzaile bat da eta desgaitasun egoeran dauden pertsonen errealitatea bizitzea du helburu, modu dibertigarri eta aldi berean erreflexibo batetan.

Programa 1h eta 30 minutuko iraupena izaten duen saioaz osatzen da; lehen zatia atal teorikoa izaten da eta bertan kirol egokitu eta inklusiboaren inguruko eza-gutzak partekatzen dira. Saioaren biga-rren zatia, berriz, praktikara bideratzen eta jarduera, joko eta erronka ezberdinen bi-tartez, ikasleek desgaitasun mota ezber-dinak esperimentatu eta bizitzen dituzte.

2019an guztira 6 izan dira egin diren sent-sibilizazio jardunaldiak eta saio hauetan 177 ikaslek hartu dute parte. Balorazioa

oso positiboa izan da bai ikasleko, baita irakaslekoaren aldetik ere.

- . Sensi Easo (Sup Erd) 2019/01/24/ 24 ikasle
- . Sensi Easo (Sup Eus) 2019/01/24/ 24 ikasle
- . Sensi Easo (Med Eus) 2019/01/25/ 24 ikasle
- . Sensi Mutriku (Sup Erd) 2019/04/04/ 20 ikasle
- . Sensi Mutriku (Sup Erd) 2019/04/05/ 40 ikasle
- . Orio Zaragueta 2019/05/17/ 41 ikasle

## 5.1. Kirol eremua

**EASO: Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako graduak.**

· **Donostia**

2019.01.24-25 / **76 partehartzaile**

Sentsibilizazio jardunaldiak egiteaz gain, GKEftik kirol materiala alokatzeko zerbitzu bat eskeintzen zaie federazioan izena emanda dauden kirol elkarteei alde bate-tik, baita Gipuzkoako erakunde eta ikaste-txeei ere, bestalde. Alokairu zerbitzu ho-nekin, beraz, agente ezberdinak dira era berean sentsibilizazio jardunaldiak egiten dituztenak kirol egokitua eta desgaita-sunaren inguruan.





### UDALEKUAK - UDA Gipuzkoan.

Bosgarren urtez, opor garaian urritasun egoeran dauden gazteei zuzendutako kirol jarduerak proposatzen dituen aisialdi programa bat bultzatu du berriz ere Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak. Aurten ere, Donostiko Hegalak kirol Zentroko igerileku eta aldagelak erabiltzeko aukera eskeini zaigu eta berrikuntza bezela, Irizarrekin sinatutako hitzarmen bati esker, programa hau Ordizian ere eskeini ahal izan dugu. Majori kiroldegia erabiltzeko aukera izan dugularik.



### UDA DONOSTIA ETA ORDIZIA 2019.

| Txandak                | EKAINAK 25-28 | UZTAILAK 1-5 | UZTAILAK 8-12 | UZTAILAK 15- 19 |
|------------------------|---------------|--------------|---------------|-----------------|
| Partehartzaile kopurua | 16            | 23           | 26            | 20              |
| Monitore kopurua       | 8             | 8            | 7             | 7               |
| Boluntario kopurua     | 2             | 2            | 3             | 3               |



## 5.1. Kirol eremua



### Gabonetako Haur Parkea.

Gabonetako oporretan zehar gure herrietan antolatzen diren haurrentzako jolas parkeetan, arrazoi ezberdinak direla eta, ez da ohikoena izaten desgaitasuna duten gazteak ikustea, baina aurten lehen aldiz, Andoaingo Udalak, Andoaingo Gabonetako Haur Parkea arratsalde batez Dibertsitate Funtzionala duten gazte eta

beraien senideei irekitzeko aholkularitza eskatu digu.

2019 honetan, Gipuzkoan, 6 izan dira guztira horrelako ekimen bat proposatu duten udalerrak (Andoain, Irun, Donostia, Zarautz, Azpeitia y Azkoitia). Geroztik eta nabarmenagoa da oporraldi garaietan aisialdi aktiborako planen beharra.





## 5.1.2. Lizentzien tramitazioa


Gipuzkoako Lurralde Historikoan kirol egokitua modalitateko lizentzia eta aisialdi txartelak tramitazeko zerbitzua da.

2018- 2019 denboraldian 268 kirol lizentzia tramitatu dira eta 334 aisialdi txartel.

### 2018-2019 denboraldiko Lizentzia eta ATen inguruko datuak.

|                                              |                                         |                                         |
|----------------------------------------------|-----------------------------------------|-----------------------------------------|
| Lizentzia eta AT Guztira<br><b>602</b>       | Lizentzia eta AT (E)<br><b>163</b>      | Lizentzia eta AT (G)<br><b>439</b>      |
| Lizentziak Guztira<br><b>266</b>             | Lizentziak (E)<br><b>60</b>             | Lizentziak (G)<br><b>206</b>            |
| AT Guztira<br><b>336</b>                     | AT(E)<br><b>103</b>                     | AT (G)<br><b>233</b>                    |
| 22 urtetik beherakoak Guztira<br><b>319</b>  | 22 urtetik beherakoak (E)<br><b>107</b> | 22 urtetik beherakoak (G)<br><b>212</b> |
| 22 urtetik gorakoak Guztira<br><b>283</b>    | 22 urtetik gorakoak (E)<br><b>71</b>    | 22 urtetik gorakoak (G)<br><b>212</b>   |
| Kirolariak<br><b>485</b>                     | Kirolariak (E)<br><b>110</b>            | Kirolariak (G)<br><b>375</b>            |
| Beste lizentzia eta AT guztira<br><b>117</b> | Besteak (E)<br><b>47</b>                | Besteak (G)<br><b>70</b>                |

AT.: Aisialdi Txartela; E.: Emakumea; G.: Gizona.



## 5.1. Kirol eremua

### 5.1.3. Gipuzkoako txapelketen antolakuntza

#### Gipuzkoako atletismo txapelketa. Txapelketa barruan froga espezifikoak.

Datak:

2018.2019.19      19.01.26 / 19.02.02

(2018-2019 denboraldia)

19.12.15 / 19.12.20 / 19.12.27

(2019-2020 denboraldia)

**Tokia:**

Antonio Elorza Belodromoa. Donostia.

**Partehartzaile kopurua:**

- Pisu jaurtiketa (5 froga) **3 kirolari**
- Zakutxo jaurtiketa (5 froga) **4 kirolari**
- 400m (1 froga) **2 kirolari**
- 200m (2 froga) **3 kirolari**
- 60m (3 froga) **12 Kirolari**

**Kategoriak:**

guztiei irekia.

#### Igeriketa egokituko gipuzkoako txapelketa.

**Data:** 2019.02.02

(2018-2019 denboraldia)

**Tokia:** Azpeitiko Kiroldegia

**Partaide kopurua:** 35

**Kategoriak:** kategoria guztiei irekia  
(S1-S15, emakume-gizon)





**Gipuzkoako Boccia txapelketa (gazteak).**

**Data:** 2019.02.16

**Tokia:** Jostaldi Pilotalekua (Hondarribia)

**Partaide kopurua:** 11

**Kategoriak:** kategoria guztiei irekia  
(BC1, BC2, BC3, BC4 eta BC5)



**Gipuzkoako Slalom txapelketa (gazteak).**

**Data:** 2019.02.16

**Tokia:** Jostaldi Pilotalekua (Hondarribia)

**Partaide kopurua:** 10

**Kategoriak:** kategoria guztiei irekia  
(WS1 A-B eta WS2-WS6 emakume-gizon)



## 5.1. Kirol eremua

### Gipuzkoako Euskal Pilotako Federazioarekin elkarlana.

Gurpil aulkiko kirolari eta adimen urritasuna duten kirolarien Euskal pilotako liga.

#### Berdintasuna eta ekitatea

Euskal pilota egokituko ligaren barruan, alde batetik adimen urritasuna duten pertsonentzako liga bat antolatu da eta bestalde, gurpil aulkiko erabiltzaileak diren pertsonentzako beste bat.

Adimen urritasuna duten pertsonentzako zutikako modalitatean, 2018- 2019 denbo-

raldian 6 bikotek hartu dute parte, pilotari hauek Mindara (Orereta) eta Zarautz kirol elkarteetakoak direlarik.

| JARDUNALDIAK |            | NON     |
|--------------|------------|---------|
| 1            | 2019/02/23 | LEZO    |
| 2            | 2019/03/16 | ZARAUTZ |
| 3            | 2019/05/04 | LEZO    |
| Finala       | 2019/06/01 | ANDOAIN |

2019- 2020 denboraldian, adimen urritasuna duten pertsonen paleta egokituko modalitatean (tenis paleta), bi jardunaldiz osatutako banakako txapelketa bat antolatuko da eta lortzen duten sailkapenaren arabera, bikotekako txapelketarako bikoteak eratuko dira. Bikotekako txapelketa horrek bi jardunaldi izango ditu eta ondoren finala. Banakako txapelketari 2019ko abenduaren 14ean eman zitzaion hasiera Zestoan.

**GIPUZKOAKO X. EUSKAL PILOTA TXAPELKETA**

**TENISEKO PALETA (ADIMEN URRITASUNA) BURUZ BURUKO TXAPELKETA**

**1. jardunaldia:**  
Zestoako pilotalekuan  
(2019-12-14, 10:00tan)

**2. jardunaldia:**  
Legazpiko Urbelitz pilotalekuan  
(2020-02-08, 10:00tan)

**Sarrera doan**



Logos at the bottom: Gipuzkoako Foru Aldundia, Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa.



## Nazioarteko Karate Txapelketa.

Data: 2019.11.16

Partaide kopurua: 55 kirolari.



## Antxintxika lasterketa.

Data: 2019.11.02

Partaide kopurua: 17 kirolari.

## Itsasoko Gipuzkoako X. Arrantza txapelketa (Txuriko ostadar).

Data: 2019.06.01

Tokia: Frantzia pasealekua (Donostia).

Partaide kopurua: 35 pertsona.



## 5.1. Kirol eremua

### 8° Kirola Elkarrekin Atzegi.

**Data:** 2019.03.10

**Tokia:** Legazpiko kiroldegia (Legazpi)

**Partaide kopurua:** 450 pertsona.



### Euskal Pilota egokitua Master Cup 2019.

Adimen urritasuna eta gurpildun aulkian jokatzen duten pilotarientzat irekitako txapelketa.

**Kanporaketa Fasea:**

**Data:** 2019.03.23

**Tokia:** Gurea Frontoia (Azkoitia).

**Fase finala:**

**Data:** 2019.04.07

**Tokia:** Antzizar Kiroldegiko Frontoia (Beasain)



### Gainditzen Pertsona Gorren VI. Padel Saria.

Data: 2019.06.15

Tokia: Berazubi Kiroldegia (Tolosa).

Nº de participantes: 14 pertsona.

### Urdinduz- Autismoaren aldeko mar-txa solidarioa.

Data: 2019.03.31

Tokia: Untzaga Plaza (Eibar).



## 5.1.4. Kirol disziplina. Estatutu, araudi eta hauteskunde prozesuak

### Pilota egokituaaren araudia.

2019 urte honetan, gure federazioko hel-buru garrantzitsuenetako bati erantzunez, euskal pilota egokituko araudiaren inguruan lanketa bat egiten aritu gara. Gi-puzkoa eta Euskadiko Euskal Pilotako Fe-derazioekin elkarlanean eta denon artean

adostutako egitasmoari jarraituz, euskal pilotako araudian euskal pilota egokitua-ren inguruko araudia barneratzea lortu dugu.

Modu honetan, inklusioaren bidean aurre-rapausu handia eman delarik.



## 5.1. Kirol eremua

### 5.1.5. Eskola kirol egokitu (EKE) eta inklusiboari (EKI) laguntza teknikoa

**Eskola Kirol Egokituko Programa (EKE) desgaitasuna duten eskola- umeei zuzenduriko programa bat da (6 - 20 urte), kirol praktikarako aukera bermatu nahi diena. Eskola- ume hauek, beraien ezaugarriak direla medio, eskubidez praktikatzea dagokien eskola kiroleko programatik kanpo gelditzen dira maiz, beraien ikastetxe edota beraien bizilekutik gertuen dituzten kirol elkarte nahiz kirol zerbitzuek dibertsitate funtzionalari arreta emateko garaian dituzten gabeziak direla eta.**

Egitasmo hau aurrera eraman ahal izateko, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak programa egituratu, gainbegiratu eta ebaluatzeko aditu talde bat kontratatzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak federazioaren esku uzten baitu esparru hau garatzeko funtzioa.

GKEFk 15 urte daramatza programa hau aurrera eramaten eta azken helburua, desgaitasuna duen pertsona orok kirol praktika bere ingurune naturalean egin ahal izatea da, horretarako, udaletxe ezberdinekin hitzarmenak adostea ezinbestekoa delarik.

Gipuzkoako Eskola Kirol Egokituko programa eskualdeka antolatzen da, eskualde bakoitzean dagoen erabiltzaile kopurua, hauen bizilekua eta partehartzaileen ezaugarri nahiz adina kontutan hartuz talde ezberdinak eratu eta ikasturte guztirako programazioa egituratzen delarik.

Talde bakoitzak astean zehar gutxienez bi saio egiten ditu, bata aretoan eta bestea igerilekuan. Ikasturtean zehar, gainera, zenbait asteburutan partehartze irekia izaten duten jarduera ezberdinak eskeintzen

zaizkie, jarduera hauek elkarte ezberdinekin elkarlanean antolatzen ditugularik: futbol egokituko topaketak, denontzako mendi irteerak, surf inklusiboko jardunaldiak, sentsibilizazio jardunaldiak,...


Gaur egun GKEF-k, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidaritzapean egituratzen duen Eskola Kirol Egokituko Sarea 7 eskualdetan dago aktibo: Donostialdea, Bidasoa, Oarsoaldea, Urola Kosta, Goierri, Urola Garaia eta Tolosaldea.

Debagoienan, orain arte GKEF arduratu izan da desgaitasuna duten gazteekin osatutako zenbait talderen kudeaketaz, baina aurrean, GFA-ak talde hauek bertako eskola kiroleko egituran txertatzeko egin duen apustua dela eta, bertako kirol agenteek hartu dute taldeen kudeaketa ardura, GKEF-k agente hauei aholkularitza eta laguntza ematen dielarik inklusio prozesuan zehar.



## Gipuzkoako talde aktiboen kopurua 2019an:

| ESKUALDEA    | HERRIA      | JARDUERA<br>LEHORREKO TALDE<br>KOPURUA | UR JARDUERAKO<br>TALDE KOPURUA |
|--------------|-------------|----------------------------------------|--------------------------------|
| Donostialdea | Donostia    | 5                                      | 6                              |
|              | Andoain     | 0                                      | 1                              |
| Debagaraia   | Bergara     | 1                                      | 2                              |
| Bidasoia     | Hondarribia | 1                                      | 2                              |
|              | Irun        | 2                                      | 0                              |
| Urola Kosta  | Zarautz     | 4                                      | 2                              |
| Goierri      | Ordizia     | 1                                      | 2                              |
|              | Beasain     | 1                                      | 1                              |
| Urola Garaia | Urretxu     | 3                                      | 0                              |
|              | Legazpi     | 0                                      | 1                              |
| Tolosaldea   | Tolosa      | 1                                      | 1                              |
|              | Billabona   | 1                                      | 1                              |



## 5.1. Kirol eremua

Eskola Kirol Inklusiboko Programa (EKI) 2018an zehar GKEF eta GFaren eskutik martxan jarritako egitasmo pilotu bat da, desgaitasuna duten zenbait gazte beraien ikastetxeetako Eskola Kiroleko programan integratzeko helburua duena, beti ere, inklusio prozesu egokiak bermatuz eta horretarako zenbait baliabide eskuragarri izango direla kontutan hartuta (giza baliabideak edota baliabide teknikoak).

2018 urtean zehar Gipuzkoako 21 ikastetxeren inguruan ikerketa bat egin ostean, 2019 urtean zehar, EKI gida lantzen aritu gara atal ezberdinak jorratuz. Batez ere, gida idazten aritu gara eta 2020 urtean argitaratuko delarik.

### Kirola eta desgaitasunaren inguruko lan- mahaia.

**1. Dibertsitate Funtzionaleko Mahaia**  
2018an zehar jarri zen martxan Zarautzen Udaletxeko Ongizate sailak bultzatuta.

Desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten herri mailako elkarte ezberdinek osatzen dute mahaia (Atzegi, Gautena, Aspace, Ortzadar, Zarautz Egokituz, GKEF) eta mahaia honen helburu nagusia, Zarautzen dibertsitate funtzionala duten pertsonen inklusio erreala lortzea da, gizarteko esparru guztietan.

2018ko maiatzaren 16an, dibertsitate funtzionala duten pertsonak ordezkatzeko dituzten herri mailako elkarte guztien informazioarekin **gida** bat plazaratu zen.





· Buruntzaldeako eskola kiroleko jardunaldia, Usurbil

Data: 2019.04.06

Tokia: Usurbil, Udarregi ikastola

Partehartzaile kopurua: 200

## 2. Gipuzkoako Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua.

Partaidetza izaerako aholkularitza organo bat da, 1995/1996 ikasturtetik aurrera martxan dagoena eta Foru Aldundia-ren gidaritzapean, urtero onartzen den Eskola Kiroleko Programari jarraipena egin ahal izateko, kontseilu honetan Gipuzkoa mailako ikastetxeetako, udaletako, kirol federazioetako eta Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirola Departamentuko kideak biltzen dira.

GKEFTik kontseilu honetan zuzendari teknikoa eta EKEko koordinatzaileak parte hartzen dute eta normalean urtean pare bat bilera izaten dira.



## Sentsibilizazioa eskola kirolean.

Eskola Kirol konbentzionala praktikatzen duten gazteak kirol egokituarekiko sentsibilizatzeko helburuarekin, 2019an 4 jardunaldi burutu ditu GKEFk Gipuzkoako zonalde ezberdinetan:

- Buruntzaldea.
- LEK.
- Oñati.
- Txingudi.





## 5.1. Kirol eremua

- **LEKeko eskola kiroleko jardunaldia, Arrasate.**

**Data:** 2019.04.06

**Tokia:** Usurbil, Udarregi Ikastola.

**Partehartzaile kopurua:** 200.

Athlonek (LEKeko eskola-kirolaz arduratzen den enpresa) antolatutako festaren barruan, Debagoienako eskualdean, Federazioak antolatuta eta Athloneko begiraleen laguntzarekin, sentsibilizazio-jardunaldi bat egin zen Arrasateko Iturripe kiroldegian.

- **Oñatiko eskola kiroleko jardunaldia.**

**Data:** 31.05.2019

**Tokia:** Polideportivo Zubikoa (Oñati).

**Partehartzaile kopurua:** 70.

Sentsibilizazio jardunaldi hau, Oñatiko eskola kiroleko programaren azken egunean burutu zen, bertan parte hartu zuten gazteek, desgaitasun egoera ezberdinak bizituaz joko eta erronka ezberdinak burutu behar izan zituztelarik.

Jardunaldian 70 partehartzaile aritu ziren jolasean eta gurasoek jarduerak Aurrera eramaten lagundu eta hauetan parte hartu zuten.

Erabiltzaile, familia eta antolatzaileen aldetik egindako balorazioa oso positiboa izan zen.







- Txingudi ikastolako eskola kiroleko jardunaldia, Irun.

**Data:** 2019.06.01

**Tokia:** Txingudi Ikastola.

Txingudi ikastolak ikasturte bukaeran antolatzen duen ikastolako festaren barruan burututako inklusio saio bat izan zen. Txingudi ikastolatik eke programan parte hartzen duten ikasleek, ikastolako beste ikasle eta gurasoekin batera parte hartu zuten saio honetan.

- Eskola kirol egokituko erabiltzaile eta senideen arteko topaketa.

**Data:** 27.06.2019

**Tokia:** Orona Ideo (Galarreta-Hernani).

**Partehartzaile kopurua:**

- 16 erabiltzaile.
- 20 guraso.
- Gkefko 12 langile.

Topaketa hauek bi helbururekin antolatzen dira:

1. Familien aldetik EKE 2018-2019 denboraldiaren balorazio bat egitea.
2. Eke programako erabiltzaileentzat denboraldi bukaerako topaleku bat antolatzea.



## 5.1. Kirol eremua

### 5.1.6. Kirol teknifikazioa

#### Goi mailarako etorkizuna duten kirolarientzako laguntza teknikoa.

**NERGROUP-** Kirolari onuradunak:

Teknifikazioa-Ner Group proiektua bat dator **enpresa, kirola eta boluntarioria** uztartu dituen kirolari bakoitzaren beharretara. Zenbait erabiltzailek boluntarioak behar dituzte kirola egiteko. Ondoren, **NER GROUP** proiektuaren 2019. urteko kirolari onuradunak eta horietako bakoitzaren kirol-emaizta garrantzitsuenak aipatzen dira: Jarraian, 2019an NER GROUPEko proiektuaren onuradun izan diren kirolariak eta beraien kirol marka esanguratsuenak aipatuko ditugu:

- **Fernando Mitxelena** (Tiro Olinpikoa) Nazioarteko txapelketa ezberdinetan hartu du parte Espainiar selekzioarekin.
- **Amagoia Arrieta** (Boccia) Garun Paralisiko Espainiar selekzioaren jarraipen planean parte hartzeko hautatua izan da.
- **Alex Prior** (Esgrima) Desgaitasun fisikoa duten pertsonen Espainiar selekzioaren jarraipen planean parte hartzeko hautatua izan da.
- **Aitor Garcíarena** (Txirrindularitza) Espainiako txirrindularitza txapelketan txapel-dunordea.

#### Etorkizun oparodunak:

Gipuzkoako Foru Aldundiak, apirilak 9ko 02-072/2019 Foru Aginduaren bitartez, etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariak izendatzeko araudia onartu zuen.

Kirol egokituaren kasuan, kirol paralinpiarren buletinean jasotzen diren arren, egokituak diren kirol guztiak hartzen dira kontutan.

*Etorkizun oparoa duten kirol egokituak kirolariak izendatzeko erizpideen inguruko eranskina EAO (BOG).*

|                                                                                                |            |                                                                                                                          |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Paralinpikoak<br>Modalitate bakoitzari dagokiona<br>Paralímpicos<br>Asociados a cada modalidad | 20001/2004 | Estatuko 1., 2. edo 3.a banakako merezimenduak aurkeztea.<br>1ª, 2ª ó 3º estatal y presentación de méritos individuales. |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

| IGERIKETA              | SLALOM                  |
|------------------------|-------------------------|
| Aizpuru Arotzena, Iker | Asensio Telletxea, Ane  |
| Zudaire Borrezo, Nahia | Goenaga Martinez, Ander |

### Goi mailarako etorkizuna duten kirolarien hautemate eta jarraipena.

Atal honetan, 2019an zehar nazioarteko txapelketetan parte hartu duten kirolarien errepaso bat egiten da:

| KIROLARIAK             | OHARRAK                                                           | MERITUAK                                                                                                          |
|------------------------|-------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>PARALÍMPICOS</b>    |                                                                   |                                                                                                                   |
| Iñigo Llopis           | Gaur egun Estatuko Selekzioaren kide da                           | Munduko Txapelketan partehartzea: World Para Swimming Allianz Championships- (Londres Iraila- 2019)               |
